

## **PAWPAU ZOOTERAPIA ZENTRUA:**

*“Guk proposatzen dugun proiektuak, gizartea hobetu ez ezik, edozein motatako ezgaitasun duten pertsonen integrazioa ere bultzatzen du. Animalietaz baliatuko gara gure bezeroen eta haien artean, konexio berezi bat sortzeko, jolasteko eta munduan dauden arazo guztiak (gutxienez, momentu batzuetan zehar) alde batera uzteko.*

*Zergatik sortu nahi ditugu horrelako tailerrak? Uste dugulako oso garrantzitsua dela gure mundua ezagutzea eta honetaz gozatzea. Zoriturrez, denok ezin dugu modu berean disfrutatu. Pertsona batzuek oztopoak aurkitzen dituzte egunero haien etxeetatik ateratzeko eta gure hiritik buelta bat emateko, horregatik, haien lana errazteko nahian hau sortu dugu. Guk ditugun beste aukerak haiek ere izateko.”*

Gure proiektuan **edozein pertsona** hartuko dugu, **18 urtetik gorakoa**, nagusia edo edozein motatako elbarritasuna duena. Kasu guztiak ez direnez berdinak, batzuetan pertsona berdineko taldeak egingo ditugu eta beste batzuetan, **kasuak pertsonalki aztertuko** ditugu eta hauen arabera, era bateko edo beste bateko ekintzetan parte hartuko dugu, indibidualki edo taldeka.

## **KIDE BAKOITZAREN LANA**

- **Laura Coello:** ekintza-antolatzailea, talde guztiek egingo dituzten ekintzak antolatu eta prestatu.
- **Aitana Ruiz de Lazcano:** psikologoa, bezeroekin tratu handia izango du haiekin eta animaliekin batera egingo du terapia.
- **Hegoi Díez:** dirua kontrolatu eta kontratuak egin, enpresaren kudeaketa orokorra.
- **Maitane Leal:** animalien arduraduna (zainketa, heziketa...), animalien osasunaz larrituko da eta hauek hezituko ditu terapia egin ahal izateko.
- **Laura Fernández:** publizitatea eta marketina, enpresaren irudia eta publizitatea antolatuko du.

## **GURE ORDUTEGIAK ETA PREZIOAK**

Gure ordutegia **astelehenetik ostiraletara** izango da, goizeko eta arratsaldeko saioekin. **Goizean 09:00etan hasten gara eta 13:00tan amaitzen** dugu, bezeroei etxera jatera denbora emateko. **Arratsaldez, 16:00etatik 20:00etara** izango da gure ordutegia. Gainera, hilabete bakoitzeko lehen **larunbatetan ibilaldiak** prestatuko ditugu **museoak** ikustera elkarrekin joateko (Guggenheim, Arte Ederretako museoa...).

Gure prezioak sesioz (**4 ordu**) banatuta daude. **Sesio bakoitzak 25 €** kostatzen ditu, baina sesio bat **baino gehiago erreserbatzerakoan prezioak jaisten** doaz. Hiru sesio hartuta, 75 € izan beharrean, 70 € izango dira. Eta bost sesio nahi badituzte 100 € izango dira (125€ beharrean), hau da, sesio bat dohainik izango da. **Larunbateko ibilaldiaren prezioa 15 eurokoa** izango da, eta hiru ordu izango dira.

Prezioak nahiko justuak direla uste dugu, arreta asko jartzen dugulako gure bezeroetan. Gainera, animaliak zaintzeko dirua behar dugu, janaria eta txertoentzako.